

NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA

GIZARTE LANGINTZAKO GRADUA

Ikasleen mugikortasun programen bidez hainbat helburu lortu nahi dira; izan ere, horien bidez beste errealitate batzuen berri jakiteko, esperientziak elkarri trukatzeko edo, gero eta komunikatuago dagoen mundu honetako nazioarteko integrazioa lortzeko aukera izango dute ikasleek.

Gizarte Langintzan, programa horiek Gizarte Langintzako Gradu hiru mailan egiten dira, eta horien tramitazioa urtebete lehenago hasten da.

Programa bakoitzean norakoen zerrenda bat dago (Erasmus, Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk), eta, hortaz, ikasleek egiaztatu egin behar dute zer eskaintza dagoen.

Trukea lauhileko baterako edo ikasturte osorako izan daiteke, eta hirugarren mailako irakasgaiak egiten dira beste unibertsitatean. Helburuko unibertsitatean lorturiko nota ikasleak hemen daukan espedientera pasatzen da gero.

Garrantzitsua da azpimarratzea trukea egiteko, aldez aurretik, zenbait izapide bete behar dituela interesdunak. Hau da, ikasleak hainbat alderdiren gaineko informazioa bildu beharko du (ikasketa plana, helburuko unibertsitateko egutegi akademikoa eta ordutegiak...), eta akordio akademikoa proposatu beharko dio mugikortasun arloko koordinatzaileari, bekak kudeatu beharko ditu, etab. Ahalegin hori egin ondoren, egindako esfortzua konpentsatzeko kanpoko unibertsitate batean egonaldia egitea espero da.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1. Eskaera egiten den unean bigarren mailan matrikulatuta egotea
2. Lehenengo maila osoa gaindituta izatea; hau da, 60 kreditu

ESKAERA EGITEKO EPEA

2025eko azaroaren 10etik 24ra

ESLEIPENA

1. Lehentasuna izango dute mugikortasun programetan inoiz parte hartu ez duten ikasleek.
2. Plazak lehenengo mailako batez besteko notaren arabera esleitzen dira.
3. 2025eko irailaren 30ean batez besteko nota altuena duten eskatzaileei esleituko zaie plaza.
4. Ikasleren batek baja egin edo plazari uko egiten badiu, posible bada, libre geratu diren plazak esleipendunak izan ez diren ikasleen artean banatuko dira, betiere batez besteko notarik onena hurrenez hurren dutenak kontutan hartuta.
5. Nazioarteko mugikortasun plaza bat eskuratu nahi duten ikasleek helburuko

unibertsitateak ezarritako hizkuntza baldintzak bete beharko dituzte.

Gizarte Langintzako Graduan, eskaerarekin batera, ikasleak bere hizkuntza tituluak edo ziurtagiriak erantsiko ditu, merezimendu gisa baloratuko baitira batez besteko notan berdinketarik egonez gero.

Merezimendu gisa baloratuko dira, halaber, ikaslea egonaldiaren helburuko unibertsitateari dagokion herrialdeko hizkuntza (herrialdeko hizkuntza ofiziala) ikasteko ikastaroren bat egiten ari dela egiaztatzeko aurkeztutako matrikula ziurtagiriak edo ziurtagiriak.

HELBURUKO HIZKUNTZA JAKITEA

Helburuko Unibertsitateko hizkuntzan maila nahikoa izan behar da. Erasmus+ mugikortasun programen kasuan, ikasleak dagokion hizkuntza ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dio Gizarte Langintzako mugikortasun arloko zuzendariari.

BN mugikortasunaren kasuan, ziurtagiriak helbide honetara bidali beharko dira: certiidiomas.internacional@ehu.es

HELBURUKO UNIBERTSITATEAN EGINDAKO HIZKUNTZA IKASTAROAK

Gizarte Langintzako graduan, mugikortasunaren egonaldian zehar xede unibertsitateetan egindako hizkuntza ikastaroak ezin dira graduko irakasgaiekin "baliokidetu".

MAILAKETA PROBA ONLINE OLS PLATAFORMAN (Erasmus+ programa soilik)

Erasmus+ mugikortasun bateko **onuradunek hizkuntza test bat** egin beharko dute **online, OLS plataforman**, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak emandako jarraibideak aintzat hartuta.

Hizkuntzaren ebaluazioa egin ezean, ezin izango da Erasmus+ mugikortasunean parte hartu eta Erasmus+ programatik kanpo geratuko da ikaslea. Horrek esan nahi du ez duela ez bekarik ez aintzatespen akademikorik jasoko kanpoan egindako ikasketengatik.

Behin emaitzak ezagututa, ebaluatutako hizkuntzaren edo helburuko herrialdeko hizkuntzaren gaineko online ikastaroa egin ahal izango da (HAUTAZKOA), atzerrian egingo den mugikortasun aldirako prestakuntza gisa.

EBALUAZIOA

Nazioarteko mugikortasun programa batean parte hartu duten ikasleek **atzerriko ikastegietan eskuratutako emaitzak** bertoko sistemara bihurtu behar dira; horretarako, atzerriko unibertsitateetako ikasketa edo tituluei dagozkien **Kalifikazio eskalak** eta **Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak** Espainiako unibertsitateetan horien baliokidetzak egiteko ezarri dituen eskalak baliatuko dira, salbu eta helburuko unibertsitateak bestelako baliokidetzak taula bat helarazten badu.

<https://www.ciencia.gob.es/InfoGeneralPortal/documento/026da14f-41c8-48c6-bd3e-2f366eeac784>

GIZARTE LANGINTZAKO GRADUAREN BEREZKO NORAKOAK

ERASMUS	
ALEMANIA	- Munich University of Applied Sciences (Munich) - TH Köln/University of Applied Sciences (Colonia)
FRANTZIA	- Institut Regional du Travail Social – Aquitania (Burdeos)
ITALIA	- Università degli Studi di Parma - Università degli Studi di Trieste - Università degli Studi di Trento
PORTUGAL	- Instituto Superior Miguel Torga (Coimbra)

LATINOAMERIKA	
MEXIKO	- Instituto Politécnico Nacional de México - Universidad de Guadalajara
Kupo orokorreko NORAKOAK	- ARGENTINA: U. Lanus, U. Nac del Litoral, U. Nacional de Cuyo... - COSTA RICA: U. de Costa Rica - ...

BESTE NORAKO BATZUK	
Kupo orokorreko NORAKOAK	- KANADA - AEB - JAPONIA

INFORMAZIO OROKORRA

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren webgunea (NHB):

<https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak>

ARGIBIDEETARAKO

Zalantzarik baduzu edo argibiderik nahi baduzu, jarri harremanetan Gizarte Langintzako Gradu Mugikortasun arloko arduradunarekin:

- Edurne Aranguren (mugikortasun arloko koordinatzailea)
<https://www.graduadosocialbizkaia.com/>
Tel.: 945 014256
- Ana Uribealgo (laguntza administratiboa)
ana.uribesalgo@ehu.eus
Tel.: 945 013311